

KANPO-MERKATARITZAREN ESTATISTIKA (KAMEE) 2024ko azaroa

Ondasunen esportazioak % 20,1 murriztu ziren 2024ko azaroan Euskal AEn

2024ko lehenengo hamaika hilabeteetan, oro har, esportazioak % 5,1 jaitsi dira, baina 28.700 milioi eurotik gorakoak dira

2024ko azaroan, Euskal AEko **ondasunen esportazioek** % 20,1 egin zuten behera urte arteko tasan, Eustaten datuen arabera. Zenbatekoa 2.519 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 3.152 milioi euroen aldean. *Energia-produktuen* esportazioak % 83,8 jaitsi ziren eta *ez-energetikoenak* % 12,2.

Bizkaia da atzerakada handiena izan duen lurralde historikoa (-% 34,0), *produktu ez-energetikoen* esportazioak (-% 15,5) eta, batez ere, *energetikoenak* (-% 84,2) jaitsi direlako. Gipuzkoan, oro har, esportazioak % 13,1 jaitsi dira eta Araban % 8,1.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Azaroa 2024

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Azaroa			Azaroa		
	2023	2024	Gehikuntza (%)	2023	2024	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	3.151.894	2.518.911	-20,1	2.220.043	2.280.704	2,7
ENERGIAZKO GAIAK	347.123	56.403	-83,8	612.301	579.296	-5,4
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.804.771	2.462.508	-12,2	1.607.742	1.701.408	5,8
URTEKO METATUA	30.264.708	28.723.929	-5,1	25.059.752	25.114.874	0,2
ENERGIAZKO GAIAK	1.687.484	1.893.862	12,2	6.417.237	6.623.937	3,2
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	28.577.223	26.830.067	-6,1	18.642.515	18.490.938	-0,8
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	943.676	867.579	-8,1	482.475	593.120	22,9
URTEKO METATUA	9.582.546	8.413.562	-12,2	5.560.244	5.665.052	1,9
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.276.791	842.206	-34,0	1.280.352	1.242.299	-3,0
URTEKO METATUA	11.396.448	11.094.418	-2,7	14.644.717	14.485.390	-1,1
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	931.427	809.126	-13,1	457.216	445.285	-2,6
URTEKO METATUA	9.285.714	9.215.948	-0,8	4.854.791	4.964.433	2,3

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2025eko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko **ondasunen inportazioek** % 2,7ko hazkundera izan zuten, 2.281 milioi eurora iritsiz. Inportazio *energetikoak* % 5,4 murriztu egin ziren eta *ez-energetikoak* % 5,8 hazi ziren. Lurraldeka, Arabako inportazioek % 22,9 egin dute gora, eta Gipuzkoakoek % 2,6 eta Bizkaikoek % 3,0 egin dute behera.

Lau esportazio-partida nagusiak, 731,5 milioi euro merkaturatuta, automobilaren sektorekoak dira, baina % 18,1 galdu dute 2023ko azaroarekin alderatuta

Xehetasunak aztertuz, ikusten da 988 esportazio-partiden rankingaren buruan honako hauek daudela: "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak", 328,8 milioi merkaturatuta eta % 8,6ko atzerapenarekin aurreko urteko hilabete beraren aldean; "ibilgailu automobilaren zatiak eta osagarriak", 178,1 milioi esportatuta —aurreko urteko hilabete berean baino % 16,8 gutxiago—; "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak", 143,9 milioi —% 27,8 jaitsi da—; "Kautxuzko pneumatiko berriak", 80,7 milioi —% 33,0 jaitsi da—; eta "Hodietarako txorroten, balbula eta antzeko organoen artikulua", 56,1 milioi, —% 21,4 hazi da—. Bost partida horiek, azaroan, salerositako guztiaren % 31,3 hartzen dute, guztira 787,7 milioi euroko balioarekin; horietatik 731,5 milioi euro automobilaren sektoreari dagozkio, baina % 18,1 galdu dute 2023ko azaroarekin alderatuta.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	3.151.894	2.518.911	100,0	-20,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	359.902	328.803	13,1	-8,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	214.086	178.130	7,1	-16,8
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	199.360	143.927	5,7	-27,8
Kautxuzko pneumatiko berriak	120.384	80.689	3,2	-33,0
Txorrotetarako artikulua, balbulak eta antzekoak tutuetarako	46.224	56.118	2,2	21,4
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	58.793	47.453	1,9	-19,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	59.648	43.037	1,7	-27,8
Petrolioaren olio finduak	306.540	39.174	1,6	-87,2
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	31.399	34.728	1,4	10,6
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	19.027	31.684	1,3	66,5
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	620	31.085	1,2	4.912,5
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriak	37.689	29.791	1,2	-21,0
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	24.186	28.667	1,1	18,5
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	53.946	27.162	1,1	-49,6
Ardoa, mahats freskoarena	22.578	26.325	1,0	16,6
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	31.272	26.181	1,0	-16,3
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	11.043	25.980	1,0	135,3
Gidaria barne pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	27.682	25.962	1,0	-6,2
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	10.138	25.611	1,0	152,6
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	20.982	23.175	0,9	10,4
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	42.015	22.858	0,9	-45,6
Ontziak eta paketatutako aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatutako makinak	15.480	22.782	0,9	47,2
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	27.392	22.411	0,9	-18,2
Transmisio-ardatzak, kojineak, engranajeak, enbrageak, etab.	24.158	21.592	0,9	-10,6
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	19.311	20.872	0,8	8,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Lehenengo 25 posizioetan dauden partiden artean, nabarmentzekoak dira *"Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, bagajeak, posta eta abar"* (% 4.912,5), *"Xafla, barra, profil, hodi eta antzeko burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko eraikuntzak"* (% 152,6) eta *"Findu gabeko kobrea; finketa elektrolitikorako kobrezko anodoak"* (% 135,3). Aipatzekoa da, baita ere, *"Petrolio-olio finduen"* jaitsiera, 39,2 milioi esportatu baitira —% 87,2 gutxiago—.

Azaroan, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Belgika eta Italia izan ziren Euskal AEren bezero nagusiak, esportazio guztien % 48,5 hartzen baitute. Bost herrialde horietatik lau EB-27koak dira; Bertan, esportazioaren % 61,5 biltzen da.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	943.676	867.579	100,0	-8,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	292.956	309.631	35,7	5,7
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	199.144	143.392	16,5	-28,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	48.555	52.895	6,1	8,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	47.823	38.402	4,4	-19,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	51.031	36.274	4,2	-28,9
Ardoa, mahats freskoarena	20.927	24.698	2,8	18,0
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	14.841	13.851	1,6	-6,7
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	6.100	12.818	1,5	110,1
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	5.256	7.634	0,9	45,2
Bonbak, granadak, torpedoak, minak, misilak, kartutxoak eta gainerako munizioak, jaurtigaiak eta horien zatiak	5.384	7.011	0,8	30,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Arabak, muga-zergen partida nagusitik —*"10 pertsona baino gutxiagoko turismoak"*— 309,6 milioi euroko balioaz esportatu da, eta aurreko urteko mailatik % 5,7 hazi da; baina ondoren datorren partidak —*"Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak"*— % 28,0 egin du atzera. Halaber, kasu honetan % 28,9 jaitsi da *"Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsen"* esportazioa, hau da, 2023ko azaroan baino 14,8 milioi euro gutxiago.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.276.791	842.206	100,0	-34,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	77.010	67.270	8,0	-12,6
Petrolioaren olio finduak	303.730	37.215	4,4	-87,7
Turborreaktoreak, turbopropulsatzailak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	31.094	34.475	4,1	10,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	71.102	27.305	3,2	-61,6
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	11.043	25.980	3,1	135,3
Aduana-tarifar berariaz jasota ez dauden merkantziak	52.767	25.614	3,0	-51,5
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	18.250	20.481	2,4	12,2
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	64.503	18.330	2,2	-71,6
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	20.953	18.068	2,1	-13,8
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	20.403	17.739	2,1	-13,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian, nabarmentzekoa da "Petrolio-olio finduen" esportazioen beherakada —266,5 milioi euro gutxiago—, hau da, % 87,7ko jaitsiera. "Kautxuzko pneumatiko berriak" (27,3 milioi euro esportatu eta aurreko urtean baino 43,8 milioi euro gutxiago, hau da, % 61,6 gutxiago), eta "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (% 71,6 gutxiago eta 46,2 milioi euro gutxiago).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2024

f X Eustat-Euskal Estatistika Erakundea



	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	931.427	809.126	100,0	-13,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	89.252	72.457	9,0	-18,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	56.018	44.717	5,5	-20,2
Txorrotetarako artikulua, balbulak eta antzekoak tutuetarako	29.410	40.551	5,0	37,9
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	1	31.084	3,8	-
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	27.570	25.959	3,2	-5,8
Ontziak eta paketatutako aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatutako makinak	14.367	21.450	2,7	49,3
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	36.797	19.868	2,5	-46,0
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	21.814	18.293	2,3	-16,1
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	16.125	17.761	2,2	10,1
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	14.305	16.558	2,0	15,7

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoan iguera nabarmenak izan dituzte "Hodietarako txorroten, balbula eta antzeko organoen artikuluek" eta "Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoek, bagajeek, postak eta abarrek", 40,6 eta 31,1 milioi esportatu baitituzte, hurrenez hurren. Hala ere, % 18,8 murriztu dira "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (2023ko azaroan baino 16,8 milioi euro gutxiago) eta % 20,2 "Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak" (11,3 milioi euro gutxiago).

"Petrolio-olio finduen" inportazioak % 209,5 igo dira 2024ko azaroan

Inportazioak muga-zergeren partiden arabera aztertuz gero, ikusten da garrantzitsuenak, "Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak" (guztizkoaren % 16,5) % 29,3ko jaitsiera izan duela. Aitzitik, hazkunde esanguratsua izan dute "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilen" (66,8 milioiko balioagatik, hau da, 2023ko aldi berean baino % 1.558,7 gehiago), "Petrolio-olio finduen" (% 209,5 igo dira, 154,2 milioiko balioagatik inportatu baitira) eta "Petrolio-gas eta gainerako hidrokarburo gaseosoen" (% 55,1 gehiago eta 46,6 milioi erosi dira) inportazioek.

Hil honetan, inportazio handienak herrialde hauetatik egin dira, hurrenkera honetan: Alemania 380,4 milioi, Frantzia 174,2 milioi, Txina 165,4 milioi, Mexiko 116,0 milioi eta Italia 113,4 milioi.

2024ko lehen hamaika hilabeteetan, ondasunen kanpo-merkataritzak 3.609 milioi euroko saldo positiboa izan du, aurreko urteko aldi berean baino ia 1.600 milioi euro gutxiago

Urteko lehenengo hamaika hilabeteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioak % 5,1 jaitsi dira aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 1.541 milioi gutxiago. Horrek esan nahi du merkataritza-saldoa 1.596 milioi euro murriztu dela, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoaren aldean.

Bizkaiko esportazioak, aztertutako aldian, Euskal AEko garrantzitsuenak dira, 11.094,4 milioiko guztizko metatuarekin eta % 2,7ko jaitsierarekin. Araban, 8.413,6 milioi merkaturatu dira, eta % 12,2ko murrizketa izan da. Urteko metatua, Gipuzkoak izan du portaerarik onena: %0,8 egin du behera, eta 9.215,9 milioi euro esportatu dira. Produktu-mota kontuan hartuta, “Produktu ez-energetikoak”, 26.830,1 milioi salduta, % 6,1 jaitsi direla ikusten dugu. “Energia-produktuek”, aldiz, %12,2ko hazkundera izan dute, 1.893,9 milioira iritsi arte.

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Azaroa 2024

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	28.723.929
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.504.973
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	2.156.604
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.369.019
4	2710	Petrolioaren olio finduak	1.272.683
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	965.707
6	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	587.651
7	8481	Txorrotetarako artikulua, balbulak eta antzekoak tutuetarako	520.522
8	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	476.330
9	2709	Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	385.808
10	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	376.375
11	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	365.355
12	9990	Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	364.020
13	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsauearako	334.810
14	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	333.448
15	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	302.187
16	7308	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eto, burdinako edo altzairuko antzeko	287.707
17	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	287.561
18	8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaarako euskarriak	281.030
19	7402	Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	266.934
20	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	263.267
21	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	249.191
22	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	242.508
23	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	235.182
24	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbriatura moldeatu batzuk	226.786
25	8301	Metal arruntzeko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	220.068

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Xehetasunak aztertuta, muga-zergen partida nagusia (2.505 milioi esportatu dira) "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoa*" da, % 16,3ko atzerakada izan duen arren. Jarraian, "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*" daude, % 2,9ko hazkundearekin, 2.157 milioi eurora iritsiz; ondoren, "*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*", 1.369 milioirekin eta % 31,6ko jaitsierarekin. Hamar muga-zergen partida nagusien artean esportazioen hazkunde handiena (% 248,1) "*Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak*" arloan izan da, 385,8 milioi esportatu baitira, aurreko urteko aldi berean baino 275 milioi euro gehiago.

"*Petrolio-olio finduak*" % 10,1 murriztu dira eta "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" % 28,5, hau da, zifra absolutuetan, 2023ko azaroan baino 142,6 eta 384,7 milioi gutxiago. Beste jaitsiera aipagarri bat "*Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsetan*" gertatu da, 195 milioi jaitsi (% 29,1) baitira aurreko urtearen aldean.

2024ko lehen hamaika hilabetetako esportazio-rankingaren arabera, Frantzia da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 15,9arekin. Frantziaren atzetik daude Alemania (% 14,4) eta Erresuma Batua (% 7,1); horrela, hiru herrialde horien artean, euskal esportazioen % 37,4 biltzen da.

Euskal AE osorako inportazioen metatua 2024ko azarora arte 25.114,9 milioi eurotara iristen da. Zifra horren urte arteko alderaketa eginez gero, ikusten da 2023ko aldi berean erregistratutakoa baino 55 milioi gehiago dela.


Hauek dira ranking inportatzaileko lehen hiru postuetan dauden produktuak: "*Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak*", 4.606,8 milioi inportatuak (guztiaren % 18,3); "*Petrolio-olio finduak*", 1.591 milioi inportatuak (guztiaren % 6,3); eta "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*", 895,3 milioi inportatuak (guztiaren % 3,6).

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2024ko lehenengo hamaika hilabeteetan, 3.609 milioi euroko saldo positiboa izan du, aurreko urteko aldi berean baino 1.596 milioi gutxiago, eta estaldurata % 114,4koa izan da. Tasa hori 100etik gora dago, hau da, inportatzen duguna baino gehiago esportatzen dugu, 27-EBko ia herrialde guztiekin alderatuta, Irlanda (% 13,8), Luxenburgo (% 88,5), Finlandia (% 89,4), Letonia (% 52,4) eta Bulgariaren (% 96,6) kasuetan izan ezik.

Ranking esportatzailearen lehen postuetan dauden herrialdeen kasuan, tasa hori % 111,7koa da Alemaniaren kasuan, % 228,5koa Frantziaren kasuan eta % 326,7koa Erresuma Batuen kasuan.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Miloi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62